Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

6322

EBAZPENA, 2009ko urriaren 20koa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, Guatemalan garatu behar zuen jarduerarako Mercedes Franco del Pozo lankideari esleitutako diru-laguntzaren zati bati uko egiteko eskabidea onartzen duena. «Entre Amigos-Lagun Artean» entitateak aurkeztu zuen proiektua, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren kontura euskal lankideei diru-laguntzak emateko 2007ko deialdian.

Garapen Lankidetza sustatzeko Fondoaren kargura 2007. urteko ekitaldian euskal lankideei diru-laguntza emateko deialdia egiten duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko apirilaren 4ko Aginduak ezarritakoarekin bat etorriz, Mercedes Franco del Pozo lankideari 36.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion, Guatemalako jarduerako gastuak ordaintzeko.

Bestalde, 388/1995 Dekretuaren 15. artikuluan agintzen denez, lankide boluntarioaren lana funtsean alda dezakeen edozein gorabehera gertatzen bada, eskabidea egin duen erakundeak berehala jakinarazi beharko dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari.

Entre Amigos-Lagun Artean entitateak, 2009ko urriaren 13an, dagoeneko emandako diru-laguntzaren zati bati uko egiteko eskabidea egin zion Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Arazo pertsonalak dira aldaketaren arrazoia.

Lankideak 2009ko apirilaren 30ean amaitu zuen bere eginkizuna; hortaz, hiru hilabetekoa da ukoa. Eusko Jaurlaritzak hasieran emandako 36.000 euroko diru-kopuruari kenketa proportzionala egin ostean, 31.500 eurokoa da egungo diru-zenbatekoa. Jasotako diru-laguntza ordaindu beharrekoa baino handiagoa denez, 4.500 euro itzuli behar dira.

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak 2009ko urriaren 20an diru-laguntzaren entitate onuradunak eskatutako ukoaren aldeko irizpena eman zuen. Horren ondorioz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Entre Amigos-Lagun Artean erakundeak Mercedes Franco del Pozoren proiektuan aurkeztutako ukoa onartzea eta, ondorioz, 4.500 euro

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

6322

RESOLUCIÓN de 20 de octubre de 2009, de la Directora de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la solicitud de renuncia parcial de la ayuda a la cooperante Mercedes Franco del Pozo que debía desarrollar su actividad en Guatemala presentado por la entidad Entre Amigos-Lagun Artean dentro de la convocatoria de las ayudas a las personas cooperantes vascas con cargo al Focad 2007.

De conformidad con lo establecido en la Orden de 4 de abril de 2007, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se convocan ayudas a las personas cooperantes vascas con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo para el 2007 se concedió una ayuda de 36.000 para sufragar los gastos de la cooperante Mercedes Franco del Pozo que debía desarrollar su actividad en Guatemala.

Por otro lado, el artículo 15 del Decreto 388/1995, establece que la entidad solicitante deberá informar inmediatamente a la Dirección de Cooperación al Desarrollo sobre cualquier circunstancia que pudiera afectar sustancialmente a la labor de la persona cooperante.

Con fecha 13 de octubre de 2009 la entidad Entre Amigos-Lagun Artean, en comunicación dirigida a la Dirección de Cooperación al Desarrollo formuló una solicitud de renuncia parcial a la ayuda ya concedida. La modificación tiene su causa en motivos personales.

La persona cooperante ha finalizado su labor en fecha 30 de abril de 2009, por lo que la renuncia es exactamente de 3 meses. Aplicando la reducción proporcional al importe concedido inicialmente por el Gobierno Vasco (36.000 euros), el importe actualizado pasa a ser de 31.500 euros. Debido a que los pagos realizados son superiores a la cantidad que debe subvencionarse se procederá a la devolución de 4.500 euros.

En fecha 20 de octubre de 2009, la Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a la renuncia parcial solicitada por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Aceptar la renuncia parcial solicitada por la entidad Entre Amigos-Lagun Artean en el proyecto Mercedes Franco del Pozo presentado

itzuli beharra dira. Proiektua Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren 2007ko deialdiaren esparruan aurkeztu zen.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gizarte Gaietako sailburuordeari zuzenduta. Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin, hala baitio ekainaren 19ko 7/1997 Legearen 49.2 artikuluak. Lege horren bidez, diru-laguntzen eta laguntzen araubidea arautzen da eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legea aldatzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 20a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

dentro de la convocatoria de ayudas a las personas cooperantes vascas con cargo al Focad 2007, lo cual supone la devolución de 4.500 euros.

Segundo.– Contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes, a partir del día siguiente a su notificación.

Tercero.– Ordenar la publicación de la presente Resolución, para su general conocimiento, en el Boletín Oficial del País Vasco, conforme a lo estipulado en el artículo 49.2 de la Ley 7/1997, de 19 de junio, por la que se regula el régimen de subvenciones y ayudas y se modifica la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de octubre de 2009.

La Directora de Cooperación al Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.